

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2017/2018 ikasturtea

**IDAZKETA PROZESUA HAUR HEZKUNTZAKO ETAPAN:
IDAZKETA FASEEN ETA ZAILTASUNEN AZTERKETA.**

Egilea: Aitziber Etxebarria Elordui

Zuzendaria: Gorka Roman Etxebarrieta

Leioan, 2018(e)ko martxoaren 30ean

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. Esparru teoriko eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera	3
1.1. Definizioa.....	3
1.2. Idazketa prozesuaren garapena.....	5
1.2.1. Nola?.....	5
1.2.2. Noiz?	6
1.3. Idazketaren faseak.....	7
1.4. Ikasleekin idazketa fasearen arabera landu daitezkeen testuak.....	9
1.5. Idazteko zailtasunak.....	10
2. Metodologia	11
2.1. Helburua.....	11
2.2. Hipotesiak	12
2.3. Lagina.....	12
2.4. Ikerketa tresnak	15
2.5. Prozedura.....	15
3. Emaitzak	16
4. Emaitzen eztabaida	20
5. Ondorioak	22
6. Ikerketaren mugak eta etorkizunerako aukerak	23
7. Erreferentzia Bibliografikoak.....	24

ERANSKINAK

1. Eranskina: Imitazioaren fasea
2. Eranskina: Idazketa bereziaren fasea
3. Eranskina: Fase silabikoa
4. Eranskina: Zatitze silabiko-alfabetikoaren fasea
5. Eranskina: Zatitze alfabetikoaren fasea
6. Eranskina: Idazketa faseak
7. Eranskina: Zailtasunak identifikatzeko taula

IDAZKETA PROZESUA HAUR HEZKUNTZAKO ETAPAN: IDAZKETA FASEEN ETA ZAILTASUNEN AZTERKETA

Aitziber Etxebarria Elordui

UPV/EHU

Haur Hezkuntzako etapan idazketa prozesurako lehen hurbilpena egiten da ikastetxeetan. Nahiz eta garai hauetan derrigorrezkoa ez izan, ikasleek honekiko interesa agertzen dute eta hurrengo etapetan sendotuko denaren hasiera ematen da Haur Hezkuntzan. Lan honen helburua, hiru, lau eta bost urteko umeen idazketa prozesua aztertzea izango da. Horretarako ikastetxe bitan jaso dira datuak eta ikasleen idazketa faseak, zentroen metodologiaren ekarpena, eta prozesuan identifikatzen diren zailtasunak ikertuko dira. Behaketa parte-hartzailearen bidez, ikerketa konparatibo bat burutu da. Emaitei erreparatuta, metodologia ezberdinetan erabiltzen dituzten ikastetxeen artean ez da ezberdintasun nabaririk antzeman ez idazketa faseetan ezta idazketa prozesuan azaltzen diren zailtasunetan ere.

Idazketa prozesua, idazketa faseak, zailtasunak, metodologia, Haur Hezkuntza

En la etapa de la Educación Infantil el primer acercamiento al proceso de escritura se hace en los centros de enseñanza. Pese a no ser obligatorio en esta etapa, el alumnado muestra interés con este, además comienza en Educación Infantil y se fortalecerá en etapas siguientes. El objetivo de este trabajo es analizar el proceso de escritura en niños de tres, cuatro y cinco años. Para ello, se recogerán datos en dos centros y se investigará la contribución de las metodologías del centro al proceso de la escritura y las dificultades identificadas en el proceso. A través de la observación participativa, se ha realizado un estudio comparativo. En cuanto a los resultados, no se encuentran grandes diferencias entre ambos centros educativos ni en las fases de escritura ni tampoco en las dificultades encontradas en el proceso de escritura.

Proceso de escritura, fases de escritura, dificultades, metodología, educación infantil

In the stage of early childhood education the first approach to the writing process is done in schools. Although not obligatory at this stage, the student shows interest with this, also begins in early childhood education and will be strengthened in the following stages. The objective of this study is to analyse the process of writing in children from three, four and five years. To do this, collect data in two centres and will investigate the contribution of the methodologies from the centre to the writing process and the difficulties identified in the process. Through participatory observation, there has been a comparative study. In terms of the results, there are not great differences between both schools or in stages of writing or in the difficulties encountered in the process of writing.

Writing process, writing stages, difficulties, methodology, early childhood education

Sarrera

Idazketa gizakiok gure artean komunikatzeko erabiltzen dugun tresna da. Kontzeptu honen irakaspena luzea eta aldi berean konplexua da. Haur Hezkuntzako etapan, idazketaren irakaspena derrigorrezkoa ez bada ere, idazketaren irakaspenari hurbilpen bat egiten zaio ikastetxeetan, hezkuntzako hurrengo etapetan honen ikasketa eta erabilera sakontzeko helburuarekin. Garai honetan, hiru eta bost urte bitarteko haurrak idazketarekiko interesa adierazten hasten dira eta hau ikasteko eta erabiltzeko gogoak sortzen zaizkie. Izan ere, testu idatziez inguratuta daude eta horrek haurren motibazioa bultzatzen du.

Idazketara ematen den hasierako hurbilpen honetan haurrek ikasketa prozesu bat bizi dute, prozesu hau euren garapenari oso lotuta dagoelarik. Irakasle jardunean, eta eskoletan oro har, egunerokotasunean (korruan, egunean zeharreko ekintzetan, ...) Curriculum dekretuetan hasierako urteetatik hurbilpen bat egiten zaio gaiari eta kasu gehienetan, ikasgelako espazioen antolaketan hizkuntzari dedikatutako txoko edo eremu bat aurkitzen dugu. Lan honen helburu nagusia, hain zuzen, hiru, lau eta bost urteko haurren idazketa prozesua aztertzea izango da. Horretarako prozesu honetan ikasleek igarotzen dituzten faseak aztertuko dira, idazketa irakaskuntzarako erabiltzen diren metodologiek dituzten emaitzak eta idazketa prozesuan ikasleengan antzematen diren zailtasunak ikertuko dira. Hau lortze aldera, behaketa parte-hartzailean oinarritutako ikerketa konparatibo bat egingo da, non metodologia ezberdinak erabiltzen dituzten bi ikastetxe hautatu diren, zentro hauetako ikasleen datuak biltzeko eta euren artean ere konparatzeko. Ikerketa honetarako espreski sortutako behaketa tresnak erabiliko dira eta hauen bitartez aztertutako datuei esker prozesu honek Haur Hezkuntzan dituen ezaugarrietako batzuk ezagutu ahal izango dira.

Ikerketa egin eta ateratako emaitzei erreparatuta, ikusi da adinaren arabera fase bat edo gehienez bi nabarmentze direla. Izan ere, umeen ehuneko handiena adinak kontuan izanda, idazketa fase batean kokatzen dira. Gainera, bi ikastetxeetan aztertutako idatzietan identifikatu diren zailtasunak ohikoak dira Haur Hezkuntzako etapan aurkitzen diren haurrentzako.

1. Esparru teoriko eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera

1.1. Definizioa

Idaztea testu idatzi esanguratsu bat produzitzeko prozesuan datza, hau da, grafia sistemako ikurrak erabiliz ahozko hizkuntzan esaten dena transkribatzean datza (Bigas, 2001). Prozesu honetan bi kontzeptu ezberdintzen dira: hizkuntza idatzia eta idazketa. Hizkuntza idatzia, Bigasen eta Correigen (2001) hitzetan, idazkera erabiliz ekoiztutako testua da; ekoiztutako testuak erabilera soziala duelarik. Gaur egun, bi kontzeptu hauek berdinak direla uste da eta horregatik, eskolan hizkuntza idatziak eskaintzen dituen baliabide eta funtzioak alde batera uzten dira; kaligrafia hutsa irakatsiz.

Idazketa prozesua eta marrazketa prozesua ezberdinak dira Juaristik (2002) azaltzen duen bezala (ekintza bakoitzak bere eginkizuna du). Beraz, garrantzitsua da bi kontzeptu hauen arteko ezberdintasunak ezartzea. Marrazketarekin alderatuz, idazketak bere gain ezagutza ezberdinak behar ditu idatzi bat erreproduzitzeko. Horregatik, haurrek letra ezberdin eta asko, zeinu grafikoak, tartekak, puntuak eta abar beharrezkoak dituzte idatzi bat egiteko.

Haranburuk, Alonso-Arbiolak, Balluerkak eta Gorostiagak (2008) bi idazketa mota bereizten dituzte. Alde batetik, idazketa erreproduzizailea edo kopia bezala ezaguna dena. Kasu honetan, idazleak entzuten edo ikusten duena idazten du. Beste alde batetik, idazketa sortzailea dago. Bigarren idazketa mota honetan, idazleak bere ideia propioak erabiliz idatzia sortuko du.

Idazketa prozesuaren irakaskuntzan, hasiera batean irakaskuntza tradizionalak alderdi figuratiboei ematen zien garrantzia (Ferreiro, 1997). Gaur egun berriz, alderdi eraikitzailea kontuan hartzen da. Modu honetan, esanahiak garrantzia handiagoa hartzen du eta alderdi figuratiboak bigarren mailan geratzen dira. Gainera, alderdi eraikitzaile honek, Haur Hezkuntzako curriculumak zehazten duen Euskal Autonomi Erkidegoko dekretuak (237/2015) aipatzen duen “Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia” (7.or) eta diziplinaren baitako “Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia”-k (7.or) egiten duten proposamenarekin bat egiten du.

Bigasek (2001), hizkuntza idatziaren eta ahozko hizkuntzaren arteko ezberdintasunak azaltzen ditu eta aldi berean, bi kontzeptu hauen arteko antzekotasunak ere. Haurrak txikitatik ahozko hizkuntza erabiltzen hasten dira beste pertsona batzuekin komunikatzeko helburuarekin. Gainera, diskurtso mota honek, ez du planifikaziorik behar; ahozko hizkuntza erabiltzen duten partaideek interpretazioak egiten dituzte eta

bat-batekotasuna erabiltzen dute beste pertsonekin komunikatzeko. Egia da, ahozko hizkuntza formalaren hainbat ezaugarrik hizkuntza idatziaren antzekotasun gehiago dute. Horrez gain, Haur Hezkuntzako geletan ahozko hizkuntzaren garapenak garrantzia du hizkuntza idatzia lantzeko. Izan ere, idatziko dena planifikatzeko eta adosteko, haurrak eta irakasleak ere, ahozko hizkuntzaz baliatzen dira.

1.2. Idazketa prozesuaren garapena

1.2.1. Nola?

Idazketa prozesu luzea eta konplexua da (Díez de Ulzurrun, 1999). Correigek (2001) hiru urrats nabarmentzen ditu prozesu honetan: planifikazioa, idaztea eta berrikusketa. Testu baten erreprodukziorako hiru urrats hauek modu linealean erabili behar direneko ustea dago, nahiz eta ez den beti horrela izan behar.

Planifikazioaren urratsean errepresentazio mental bat egiten da idatziko den horren inguruan, zer idatzi nahi den eta nola idatziko den galderei erantzunez. Prozesu honen baitan bi azpiprosesu ezberdintzen dira: sortzea eta antolatzea. Sortzeak idazleak memorian gordeta duen informazioa aktibatzen du, betiere duen beharraren arabera. Antolatzeak aldiz, sortu den informazioa sailkatzen du idatzi nahi denaren helburuak kontuan harturik. Haur txikien kasuan nabarmendu beharra dago pertsona helduen aldean planifikatzeko duten aukera ezberdintasuna. Beraz, planifikazio prozesua talde handian eta ahoz egitea gomendagarria da, betiere irakaslea planifikazio prozesuaren gidaria delarik (Correig, 2001).

Idaztearen urratsean, idazleak antolatutako ideiak testu batean ekoizten ditu. Prozesu honetan, idazleak dituen ezagutzak aktibatzen dira. Kontuan hartu behar da, Haur Hezkuntzako ikasleek ezagutza horiek ez dituztela hain garatuta beraz, transkribapena askotan, irakasleak egiten du; horrek ez du esan nahi ikasleek ez dituztenik testuak erreproduzitzen (Correig, 2001).

Azkeneko urratsean, *berrikusketan*, ikasleak idatzitakoari erreparatzen dio. Kasu honetan, idazleak ekoiztutako guztia berriro ere irakurtzen du testuan hobekuntzak egiteko asmoarekin, eta behar izatekotan aldaketak eginez. Berrikusketa askotan errepikatzen den prozesua da, hau da, idazleak testua garatzen duen bitartean behin eta berriro aurretik idatzitakora bueltatzen da. Haur Hezkuntzako etapan, prozesu hau talde handian egitea gomendatzen da ahozko hizkuntzaz baliaturik (Correig, 2001).

Carlinok (1996) proposamen honi jarraiki, garrantzirik handiena planifikazio eta berrikusketa prozesuei ematen die:

[...] la planificación y especialmente la revisión son operaciones fundamentales en la escritura, forman parte de su misma esencia. A diferencia del lenguaje oral, el lenguaje escrito lleva la marca de estas planificaciones y revisiones: no es un lenguaje espontáneo sino anticipado, calculado, evaluado, pulido, reconsiderado (Correig, 2001: 152. or).

Honetaz gain, beste bi osagaik osatzen dute idazketa prozesua, hala nola, epe luzeko oroimenak eta komunikazio egoerak (Correig, 2001). Epe luzerako oroimena, idazleek garunean gordeta duten informazioari deritzo. Beraz, gordetako informazioa gai zehatz eta gutxi batzuk izango dira eta gainera, idazketa formalarri buruzko ezagutzak era berean eskasak izango dira (Correig, 2001). Komunikazio egoerak idazlearen kanpoko elementuak hartzen ditu kontuan. Elementu hauek egoera ezberdinak sortarazten dizkiote idazleari, hala nola, arazo erretorikoa eta testua. Arazo erretorikoa, idazlea idaztera bultzatzen duen faktorea da eta testua berriz, arazo horri ematen zaion soluzioa.

1.2.2. Noiz?

Urteekin autoreen iritziak aldatuz joan dira idazketaren irakaskuntzarekin hasteko adina zein den zehazteko. Irakaskuntza tradizionalerako hainbat autorek, prozesu honen lanketa haur txikiekin martxan jartzea desegokia ikusten zuten. Psikologo kognitiboak aldiz, ez zetozen ideia honekin bat. Aditu hauek, haurrek bizitzaren lehenengo urteetan dituzten aukerak goraiatu zituzten eta Haur Hezkuntzako lehen urteetan idazketa prozesuaren lanketa eta ezagutza proposatzen zuten (Rodríguez, 1985). Autore honen ustez, psikologo kognitiboek, hurrengo printzipioak nabarmentzen dituzte:

- Haurrak bizitzaren lehenengo hilabetean ikasteko hainbat aukera du.
- Haurren idazketa prozesua barneratzeko adin egokiena bi eta bost urteren bitartean ematen da. Beraz, adin tarte horretan irakaspen hori egitea beharrezkoa da, atzerapenik egin gabe.
- Umeak ez luke metodologia espezifikorik jaso beharko irakurmen eta idazketa prozesuan.
- Ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren artean antzekotasunak daude. Beraz, haurrak txikitatik ahozko hizkuntza erabiltzen hasten baldin badira zergatik ez hasi hizkuntza idatziaren hastapenekin ere?

Haur Hezkuntzako curriculumak zehazten duen Euskal Autonomia Erkidegoko dekretuak (237/2015) hizkuntza idatziaren irakaspena ofizialki 6 urterekin hasten dela zehazten du. Horrek esan nahi du, Haur Hezkuntzako etapan oraindik hizkuntza idatziaren lanketa ez dela derrigorrezkoa eskoletan. Hala ere, Heziberri 2020 dekretuak hurbilpen bat egiten dio idazketari hasierako urte hauetan, hain zuzen, nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremuan, hurrengo zehaztapena egiten du idazketaren inguruan: “Ikasgelan irakurketa eta idazketa modu adierazkor eta funtzionalean erabiltzen baldin bada, haurrek, hezitzaileen laguntzarekin, idazteko sistemaren ezaugarri eta arau batzuk ikasten hasiko dira” (37 or.). Gainera, adierazpen horrekin lotura duen helburu bat proposatzen du dekretuak berak: “Hizkuntza idatziaren gizarte-arauak ikasten hastea, idazketaren funtzionamendua ikertzeko eta komunikatu, informatu eta gozatzeko tresna moduan balioesteko” (38 or.). Modu honetan, Haur Hezkuntzan, arestian aipatu bezala, idatzizko hizkuntzaren lehenengo hurbilpenak egiten dira. Lehenengo zikloan, ahozko hizkuntzak hartuko du garrantzirik gehien eta honek testuekiko interesa piztuko du, eta bigarren zikloan aldiz, idazketaren egoera errealak landuko direlarik (Alonso, Bilbatua eta Egizabal, 2012).

1.3. Idazketaren faseak

Idazketa prozesuan bost fase nagusi ezberdintzen dira zeinak umearen garapena aurrera joan ahala gertatzen diren (Ferreiro, 1997; Fons, 2001; Ibarra, 2008; Maia eta Larrea, 2010):

Lehenengo fasea, *imitazioaren fasea*¹ da. Fase honetan haurrek idazketa keinuak imitatzen dituzte, hau da, helduen idazketa imitatzen dute. Kasu batzuetan haurrek irudikatzen dituzten grafiak zirkuluak edota marrak dira. Haurrek forma ez-ikonikoak ere erabiltzen dituzte idatzietan (Fons, 2001). Beste kasu batzuetan berriz, umeei letrak irudikatzeko modu ezberdinak dituzte nahiz eta erabilitako grafiak antzekoak izan. Fase honetan, haurrek marrazkia eta idatzia bereizteko zailtasunak dituzte, eta gauza bera gertatzen zaie idazki eta zenbakien artean (Maia eta Larrea, 2010). Fasearen amaieran, zenbaki eta letren arteko desberdintasunak ulertzea heltzen dira. Gainera, haurren idatzietan ikusi daiteke idatzi duten objektuaren izenak erlazioa duela objektu horren tamainarekin (Fons, 2001). Ibarra (2008) azaltzen duen bezala, denborarekin haurrek

¹ Ikusi 1.eranskina

adierazpen ez-ikoniko eta ikonikoaren arteko ezberdintasunak eraikitzen dituzte, hau da, hurrek sortzen dituzten idazketen esanahia jakiteko hori sortzearen asmoa zein den jakitea beharrezkoa da (sortutako idatziak ez du berezko informazioa eskaintzen). Fasea aurrera egin ahala, badakite idatzita dagoenak esanahi zehatz bat duela.

Bigarren mailan, *idazkera bereizien fasean*², hurrek idazketaren ezaugarri formalen inguruko ezagutzak ikasteko interesa adierazten dute. Irudikatzen dituzten grafiak lehenengo faseko grafiekin alderatuta aldatzen dituzte eta letra konbentzionalen itxura hartuz doaz idatziak (Fons, 2001). Hurrek idazketaren prozesua imitatzeaz gain, testu idatzien propietate formalak barneratzen dituzte (Fons, 2001). Fase honetan hipotesi ezberdinak egiten dituzte, hala nola, kantitatearen-, barneko aldaeraren- eta kanpoko aldaeraren- hipotesiak (Maia eta Larrea, 2010). Kantitateren hipotesiari dagokionez, hurrek idazkiaren bitartez zerbait adierazi nahi dela badakite eta hori egiteko idatziek bi letra baino gehiago izan behar dituztela argi dute. Barneko aldaeraren hipotesiarekin, hurrek hitz bati esanahia emateko ikur ezberdinak irudikatu behar dituztela ezagutzen dute. Eta azkenik, kanpoko aldaeraren hipotesiari dagokionez, idazketa ezberdinek gauza ezberdinak adieraziko dituzte, hau da, hitz ezberdinak adierazteko erabiliko dituzten letren konbinazioak aldatuta irudikatuko dituzte (Maia eta Larrea, 2010).

*Idazkera silabikoaren*³ mailak, prozesuaren hirugarren mailak alegia, ahozkotasurekin erlazioa du; hurrek idazkera eta doinuen arteko erlazioak ezartzen dituzte (Maia eta Larrea, 2010). Beraz, kasu honetan umeak idatziko duen hitzaren analisisa ahozko hizkuntzaz baliauz egiten du gero letra bat irudikatuz hitz horren silaba bakoitzeko. Hots, hurrek silaba bakoitzeko doinu bat entzuten dute eta hori irudikatzeko, letra bakarra erabiltzen dute (Maia eta Larrea, 2010).

Ferreirok (1997) uste duen bezala, hurrek laugarren fase honi ekiten diotenean aurreko fasean, idazkera silabikoaren mailan, garatutako hipotesiak ez dituzte albo batera uzten. Etapa honetan, *zatatze silabiko-alfabetikoaren fasean*⁴, balio silabikoak garrantzia izaten jarraitzen du baina aldi berean, hurrek kolokan jartzen dute. Konturatu egiten dira silaba bakoitzak duen soinuak hitz bat baino gehiago dagoela baina ez dituzte hitzen

² Ikusi 2.eranskina

³ Ikusi 3. eranskina

⁴ Ikusi 4.eranskina

notazio guztiak idazten. Horregatik, idatzitako kontsonante eta bokal kopurua hitzak dituzten letra kopuruekin ez datoz bat. Beraz, ondoriozta genezake fase honetan silaba bakoitzeko letra bat baino gehiago idazten dutela nahiz eta fonema guztiak identifikatzeko zailtasunak izan. Maiak eta Larreak (2010) esaten duten bezala, “eskuarki bokal tonikoa eta silabaren lehenengo kontsonantea idazten hasten dira, eta gero bokal atonoak eta kontsonante trabatuak” (122. or). Gainera, fase honetan aurkitzen diren hurrak ahoskatzen diren elementu nabarmenenak idazteko gai dira (Fons, 2001). Beraz, aurretik esan bezala, hurrak fase honetan konturatzen dira silaba bakoitzeko letra bat baino gehiago dagoela.

Idazketa prozesuko azkeneko fasean, *zatitze alfabetikoaren fasean*⁵, hurrek hitz bakoitzari dagokion kontsonante eta bokal kopuruak idatziko dituzte. Hurrek maila honetan egiten duten idazketa printzipio alfabetikoetan oinarritzen da (Maia eta Larrea, 2010). Fase honetan hurrak ahoskatzen den guztia paperean idatziz jasotzeko gai dira baina zenbait arazo izaten du.

1.4. Ikasleekin idazketa fasearen arabera landu daitezkeen testuak

Irakaslearen rola, ikaslea idazketa prozesuan bultzatzea eta motibatzea da. Horregatik, Juaristik (2002) hurraren idazketa fasearen arabera, testu ezberdinak lantzea gomendatzen du. Hurrengoak dira autore honek proposatzen dituenak:

- Idazketa auresilabikoak (esanahia testuinguruan dago). Fase honetan, testu laburrak idaztea egokiena da, hala nola, umeen izenak edo gelan aurkitzen diren objektuen izenak. Fase honetan aurkitzen diren hurrentzat, testuen manipulazioa ere gomendatzen da, hau da, segmentuez baliatuta hitzak osatu eta aldi berean, sailkatu.
- Etapa silabikoak (esanahia testuan dago). Fase honetan aurkitzen diren hurrekin behaketa bultzatzea gomendagarria da, idazketa ere bultzatzen delarik.
- Fase silabiko-alfabetikoa eta alfabetikoa (testua dekodifikatzen da). Honetan gomendatzen da ikasleek diktatzen dituzten testuak idaztea, hitzen arteko konparazioak bultzatzea eta letren familiak osatzea.

⁵ Ikusi 5.eranskina

Juaristik (2002) zikloaren arabera idazketa prozesua lantzeko ariketa eta testu mota ezberdinak proposatzen ditu. 3 eta 4 urteko haurren geletan, hurrek sortutako aldizkariak egitea gomendatzen du. Idatzia lantzeaz gain, ingurune sozialaren irudikapena bultzatzea garrantzitsua ikusten du autore honek. Horretarako, gelan galderak eta eztabaida sortzen dituzten gaiak planteatzea proposatzen du. Honez gain, aldeko zein kontrako argudioak lantzea ere gomendatzen du ideiak antolatzen ikasten dutelarik. 5 eta 6 urteko geletan, Juaristik (2002) antzeko lanketak proposatzen ditu. Prentsa, hau da, aldizkaria proposatzeaz gain gutunen lanketa ere gomendatzen du. Gainera, ingurune sozialaren irudikapena lantzeko asmoarekin, autore honek egoera polemikoak gelan lantzea proposatzen du.

1.5. Idazteko zailtasunak

Haurrak idazketa fase batetik bestera igarotzean, zenbait zailtasun edo arazo kognitiboekin aurkitzen dira. Idazten ikasten ari diren haur askok, bidean arazo edo zailtasunekin topo egiten dute baina beste batzuk aldiz, zailtasun espezifikoak izan ohi dituzte; dislexia adibidez.

Hurrengoak dira Ibarak (2008) eta Maiak eta Larreak (2010) azaltzen dituzten zenbait zailtasun eta arazo kognitibo:

- Grafia identifikatzeko arazoak izan ohi dituzte hurrek. Gainera, hori irudikatzeko ere zailtasunak izaten dituzte; fonema zein den identifikatzen dute baina horren grafia irudikatzeko zailtasunak dituzte.
- Eskumatik ezkerrera idatzi, hau da, kontrako norabidean idazten dute. Horrez gain, grafemak ere beste norabiderantz idazten dituzte.
- Silaba bakarra duten hitzak idazterako momentuan, fase silabikoan dauden haurrak, letra bat gehitzen diote idatzitakoari. Izan ere, hurrek etapa honetan, kantitatearen hipotesia barneratuta dute.
- Letrak errepikatzen diren kasuetan, adibidez laranja hitzan, “AAA” irudikapenaren bitartez adieraziko zen fase silabikoak dituen ezaugarriak kontuan harturik. Kasu honetan, aldaera gutxi duen hitza denez hurrek beste grafia bat gehituko diote bere hitzari (“AAEA” adieraziz adibidez).
- Berdin idazten diren hitz ezberdinak, hala nola, balea edota atea hitzak; hurrek bi hitz hauek AEA bezala irudikatuko lituzkete eta fase silabikoan aurkitzen

diren ikasleak barneratuta dute hitz bakoitzak gauza bat esan nahi duela. Beraz, beste letra bat gehituko diote idazketari aipatutako hitzak adierazteko (Maia eta Larrea, 2010).

- Nahiz eta haurrek korrespondentzia alfabetikoa izan, ortografia akatsak dituzte idazterako momentuan. Normalean, r bakarra edo r bikoitzarekin, h-a idatzi ala ez idaztearekin edota z/s; tz/ts/tx.
- Letra larrien eta txikien bereizketak egiteko zailtasunak dituzte.
- Hitzen arteko espazioak ez dituzte errespetatzen.

2. Metodologia

Gradu Amaierako Lan honetan, behaketa metodologia erabili da. Izan ere, ageriko errealitateari dagokion interpretazioa eratzten saiatzen den prozedura da. Leónnek eta Monterok (2002), behaketa prozesu sistematikoa dela adierazten dute. Behaketa mota hau martxan ipini aurretik, prestaketa burutu behar dela diote autoreek. Horren ondorioz, behaketa parte-hartzailea egin aurretik, zer behatu, nola behatu, noiz behatu eta non behatu zehaztu da. Beste behaketa mota batzuekin (naturala, egituratua, erdi egituratua...) alderatuta, behaketa parte-hartzailean behatzailearen esku-hartzea areagotzen da. Autore hauek azaltzen duten bezala, behaketa parte-hartzailearekin, ikusleak egoeraren parte eta egoera behatzeaz gain, informazioa eskuratzeko aukera gehiago ditu behaketa mota honen erabilpenagatik. Horregatik eta ikerketaren izaera kontuan izanda, behaketa mota hau aukeratu da.

2.1. Helburua

Lan honekin lortu nahi den helburu nagusia, umeen idazketa prozesuko fase ezberdinak identifikatzea da. Izan ere, idazketa prozesuan bost fase ezberdintzen dira eta hurren garapena aurrera joan ahala hauek garatzen dira (Ferreiro, 1991; Fons, 2001; Ibarra, 2008; Maia eta Larrea, 2010).

Helburu espezifikoei dagokienean, honakoak aipatu daitezke:

- Bi eskola ezberdinetako errealitatea alderatzea, hau da, zentroen metodologiak izan dezakeen eragina aztertzea.

- Haurrek idazketa prozesuan izan ditzaketen zailtasunak zeintzuk diren identifikatzea.

2.2. Hipotesiak

Ikerketa burutu aurretik eta marko teorikoko informazio kontuan izanda, hurrengoak dira lana abiatzeko proposatzen diren hipotesiak:

- Ikasleek adinaren arabera idazketa prozesuan fase zehatz bateko ezaugarriak erakutsiko dituzte.
- Metodologia ezberdinak erabiltzen dituzten ikastetxeetako haurren artean idazketa faseetan ez da ezberdintasun handirik ikusiko.
- Idazteko prozesuan haurrek dituzten zailtasunak antzekoak izango dira.

2.3. Lagina

Ikerketa honetako lagina 241 ikaslek osatzen dute, 3, 4 eta 5 urtekoak. Ume hauek Abusu Ikastola eta Arrigorriaga Herri Ikastetxeetakoak dira. Zentroen aukeraketa ez da zorizkoa, izan ere, haurren idatziak alderatu nahi dira metodologia ezberdinak erabiltzen dituzten bi ikastetxeen artean, ezberdintasunak aurkitzen diren ikusteko. Gainera, eremu, berean aurkitzen diren bi zentro dira eta bertan aurkitzen diren haurren profila oso antzekoa da.

Taula 1

Partaideak

	3 urte	4 urte	5 urte	GUZTIRA
Abusu Ikastola	49	47	45	141
	%20,33	%19,5	%18,67	
Arrigorriaga Herri ikastetxea	31	30	39	100
	%12,86	%12,45	%16,18	

GUZTIRA	80	77	84	241
----------------	----	----	----	-----

Esan bezala, ikerketa egiteko Abusu Ikastola eta Arrigorriaga Herri Ikastetxea hautatu dira. Ikastetxe hauek, Bilbo Handian kokatzen dira. Lehenengoari dagokionez, Bilboko Abusu auzoan kokatzen da. Abusu Ikastola kooperatiba bat da eta kudeaketa familien, irakasleen eta profesionalen arteko elkarlanean oinarritzen da.

Hezkuntza eskaintzari dagokionez, HH-0tik DBH-4ra bitarteko mailak ditu. Gainera, hizkuntzari dagokionez, D ereduak da erabiltzen dena.

Ikastolan 800 ikasle inguru aurkitzen dira matrikulatuta. Ikastolako ikasle asko Bilboko auzo ezberdinetakoak edo Abusu alboko herrietakoak dira, hala nola, Santutxukoak, Miribillakoak edo Basaurikoak. Irakasle kopuruari dagokionean, 38 tutore daude zentroan. Kontuan hartu behar da, tutoreez gain, beste espezialistek edo irakasleek lan egiten dutela. Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, 6 klase daude; bi adin bakoitzeko. Ikasleei dagokienez, bigarren zikloan 153 daude. Irakasleen kasuan, 6 tutore eta hezkuntza bereziko bi hezitzaile daude, ingeleseko irakasleaz gain.

Ikastolak, Konfiantzaren Pedagogiaren proiektua martxan du. Modu honetan, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan dauden haurrek espazio bera partekatzeko aukerak dituzte, bata besteengandik ikasten duten bitartean. Kontuan hartu behar da, ordu kolektiboak ere daudela; klase bakoitzak bere tarte pribatuak ditu lanketa ezberdinak egiteko. Gainera, proiektuka lantzen dituzte gai ezberdinak, Ikastolako bigarren zikloan aurkitzen diren haur guztiek gai bera lantzen dute. Urtxintxa proiektuko zenbait material erabiltzen dituzte ere, hala nola, ipuinak zein abestiak, baina ez dute proiektua bere osotasunean erabiltzen.

Kontuan hartzekoa da, Bilboko biztanleriaren %87,6ak zerbitzuen sektorean lan egiten duela⁶. Auzoan bertan ere, herritarren gehiengoak horretan dihardu. Azkeneko 5 urteetan zerbitzuen sektorea %16,2a jaitsi da. Datu hauek horrela izanda, auzoren eta bertan bizi diren herritarren maila sozioekonomikoa ertaina dela esan dezakegu.

⁶ Eustat: Euskal Estatistika Erakundea (2012). Jarduera ekonomikoa. Zerbitzuak: BEGaren % www.eustat.eus –tik berreskuratua

Arrigorriagako Herri Ikastetxeari dagokionez, herriko erdialdean kokatzen den eskola publikoa da. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza mailak eskaintzen ditu eta erabiltzen den hizkuntza eredia, D da. Zehazki esanda, Arrigorriagako Herri Ikastetxea 722 ikaslek osatzen dute. Horietatik 489 Lehen Hezkuntzan aurkitzen dira eta beste 233ak berriz, Haur Hezkuntzan (bi urteko gela kontuan izanda). Haur Hezkuntzako hiru, lau eta bost urteko geletan, 2017-2018 ikasturte honetan, 177 ikasle matrikulatuta daude. Zentroan matrikulatuta dauden umeen gehiengoa herrikoak dira. Irakasleei dagokienez, 59 tutore eta hezitzaileak daude eskolan. Gainera, horietatik 13 tutore Haur Hezkuntzakoak dira; bi urteko gela kontuan hartuta. Horrez gain, Haur Hezkuntzako etapan ere musikako zein ingeleseko irakasleak daude.

Haur Hezkuntza osoan Urtxintxa Proiektuak eskaintzen dituen ikasmaterialak erabiltzen dituzte aldaketa askorik egin gabe. Gainera, honako zentro honetan, fitxen presentzia nabarmena da.

Ingurune ekonomikoari dagokionez, Arrigorriagan zerbitzu sektoreak garrantzia du. Izan ere, herriko biztanleen %60,6ak⁷ horretan dihardu. Industriak gero eta garrantzia gutxiago du, biztanleriaren %31,9ak⁸ horretan lan egiten du. Gauzak horrela, herriak eta biztanleak duten maila sozioekonomikoa erdi-altua dela nabarmendu behar da.

Taula 2

Desberdintasunak eta berdintasunak

	Abusu Ikastola	Arrigorriaga Herri Ikastetxea
Izaera legala	Itunpekoa; kooperatiba	Publikoa
Hezkuntza maila eta eredia	HH0-tik DBH4-ra D eredia	HH2-tik LH6-ra D eredia
Irakasle kopurua	88	59

⁷ Eustat: Euskal Estatistika Erakundea (2012). Jarduera ekonomikoa. Zerbitzuak: BEGaren % www.eustat.eus –tik berreskuratua

⁸ Eustat: Euskal Estatistika Erakundea (2012). Jarduera ekonomikoa. Industria: BEGaren % www.eustat.eus –tik berreskuratua

Ikasle kopurua	800 inguru	722
Haur Hezkuntzako metodologia	Konfiantzaren pedagogia Proiektuka gaiak lantzen dira Urtxintxa Proiektuko zenbait material	Urtxintxa Proiektua
Zentro eta gurasoen maila sozioekonomikoa	Ertaina	Erdi-altua

2.4. Ikerketa tresnak

Alde batetik, umeen idazketa prozesua ikertzeko behaketa tresna bat sortu da ad hoc (ikus 6. eranskina). Hura sortzeko, marko teorikoan autore ezberdinek fase bakoitzean adierazten dituzten ezaugarriak kontuan izan dira.

Bestetik, haurren idatzietan aurkitzen diren zailtasunak identifikatzeko behaketa tresna ere sortu da (ikus 7. eranskina). Ibarra (2008) eta Maia eta Larrea (2010) autoreek, Haur Hezkuntzako etapan hurrek idazketa prozesuan aurkitu ditzaketan zailtasunak kontuan harturik egin da.

2.5. Prozedura


Ikerketa burutzeko, Abusu Ikastola eta Arrigorriagako Herri Ikastetxeko Haur Hezkuntzako hiru, lau eta bost urteko gelan aurkitzen diren ikasleen idatziak erabili dira. Abusu Ikastolako idatziak 2018ko apirilaren lehenengo hamabostaldian jaso dira. Horretarako, datuen bilketa banan-banan egin da eguneko ikasgela batetan jasoz. Adinaren arabera, maila bakoitzean idatzien edukia ezberdina izan da. Hiru urteko gelako haur bakoitzari bere izena idazteko eskatu zaio Juaristiren (2002) gomendioak jarraituz; lau eta bost urteko gelan berriz, haurren egunerokotasuneko ekintzen inguruko idazketa eskatu zaie, hala nola, menua edota umeek eurek egindako proposamen bat (irakaslearen izena...) Gainera, Haranburuk et. Al. (2008) proposatzen duten idazketa sortzailea bultzatu da; hurrek haien ideiak erabiliz hitzak sortu dituzte.

Arrigorriagako Herri Ikastetxearen kasuan, maiatzaren lehenengo astean jaso da lagina. Hiru urteko gelan, ikasleei marrazki bat egiteko eskatu zaie eta marrazki horretan norberaren izena idaztea. Lau eta bost urteko gela baten kasuan, irakasleek zehaztutako hitzak idaztea proposatu zaie. Bost urteko beste gelan berriz, umeei nahi zutena idazteko aukera eman zaie (irakaslearentzako edo gurasoentzako mezuak). Arrigorriagako ikastetxean, idazketa erreproduzitzailerik erabili da aipatutako azken gelan izan ezik (Haranburu et al, 2008). Hau da, ikasleek irakasleak diktatutakoa idatziz jaso dute.

Haurren idatziak eskuratzeko, aurretik Abusu Ikastola eta Arrigorriagako Herri Ikastetxeko zuzendaritza taldearekin eta zentroko irakasleekin hitz egin da. Abusu Ikastola, praktikak egindako lekua izan denez, datuak ikertzaileak berak jaso ditu. Arrigorriagako Herri Ikastetxean berriz, gela bakoitzeko irakasleak bere klaseko ikasleen idatziak jaso ditu. Bi ikastetxeetan, haurren gela erabili da idatziak egiteko.


Kontuan izan behar da, ikerketa burutzeko beharrezkoak diren idatziak eskuratzeko ez dela ikaslerik derrigortu parte hartzera eta nahi izan duten hurrek bakarrik parte hartu dutela.

3. Emaitzak




Grafiko 1. Hiru urteko haurrak guztira

Lehenengo grafikoak erakusten duen bezala, *hiru urteko* umeak idazkera bereziaren fasean (%50) eta imitazio fasean (%47) daude. Fase hauetan dagoen ume kopurua oso berdintsua da eta esan daiteke ez dela fase bat nagusitzen. Horrez gain, badira fase silabikoan kokatzen diren ume gutxi batzuk ere (%3).




Grafiko 2. *Abusu Ikastola eta Arrigorriagako Herri Ikastetxea (3 urte)*

Ikastetxe bietan lortutako emaitzen alderaketari dagokiola, lehenik eta behin hiru urteko geletako umeen emaitzak aztertuko dira. Abusu Ikastola eta Arrigorriagako Herri Ikastetxeko hiru urteko geletako haurren sailkapena nahiko parekoa izan da. Bi fase nagusi ezberdintzen dira: imitazio fasea eta idazketa bereziaren fasea, baina bien artean ez da ezberdintasun nabarmenik aurkitzen. Imitazio faseari dagokiola, Abusu Ikastolako umeen %51a kokatzen den bitartean, Arrigorriagako Herri Ikastetxean %42a kokatzen da. Idazketa bereziaren faseari dagokionean, hurrengo da banaketa: %45a Abusun eta %58a Arrigorriagan. Abusu Ikastolaren kasuan hirugarren fase bat aurkitu da, fase silabikoa (%4).




Grafiko 3. *Lau urteko haurrak guztira*

Lau urteko umeen kasuan (3 grafikoa) ikus daitezkeen bezala, fase silabikoa nagusitzen da, izan ere, haurren %57a fase honetan kokatzen da. Ikasleen %21a aldiz, hurrengo fasean aurkitzen da, hau da, zaitze silabiko-alfabetikoaren fasean. Ikasleen beste %18a, idazkera bereziaren fasean dago, eta azkenik, kopuru oso murriztean bada ere, umeen %3a imitazioaren fasean aurkitzen da eta soilik %1a alfabetikoan.




Grafiko 4. *Abusu Ikastola eta Arrigorriagako Herri Ikastetxea (4 urte)*

Lau urteko hurrekin jarraituz (5 grafikoa), adin honetan nabarmentzen den fasea silabikoa da. Bi ikastetxetan emaitzarik agerikoenak fase honetan aurkitu dira, baina bien artean aldea badago; Abusu Ikastolan %72a kokatzen da eta Arrigorriagako Herri Ikastetxean %50a. Gainontzeko kasuetan emaitza ezberdinak topatu dira bi ikastetxeetan. Abusu Ikastolan beste bi fase azalarazi dira: idazkera bereziaren fasea (%11) eta zatitze silabiko-alfabetikoaren fasea (%17a). Arrigorriagan aldiz, beste lau fase aurkitu dira, hau da, idazketa prozesuko fase guztiak. Idazketa berezian %22a, zatitze silabiko-alfabetikoan %20a, imitazioan %5a, eta zatitze alfabetikoan %3a. Adin honetan Arrigorriagan agertzen diren bi faseak (imitazioa eta zatitzen alfabetikoa), idazketa prozesuan ematen diren lehen eta azken faseak dira.




Grafiko 5. *Bost urteko haurrak guztira*

Bosgarren grafikoa erreparatuz, *bost urteko* haurren gehiengoa zatitze alfabetikoaren fasean zein zatitze silabiko-alfabetikoaren fasean ageri da. Fase hauetan dagoen ikasle kopurua nahiko berdintsua da; %46a zatitze alfabetikoari dagokio eta %37a berriz, zatitze silabiko-alfabetikoari. Zenbateko txikiago batean aurkitzen dira fase silabikoan ageri diren umeak (%12a) eta idazketa bereziaren fasekoak (%5a).



Grafiko 6. *Abusu Ikastola eta Arrigorriagako Herri Ikastetxea (5 urte)*

Azkenik, bost urteko haurren idazketa prozesuan, bai ikastetxe batean zein bestean soilik haurren %5a idazketa bereziaren fasean aurkitzen da. Abusu Ikastolan, ikasleen %22a fase silabikoan kokatzen da; Arrigorriagako ikastetxean bost urteko haurren artean ez da bertan dagoen ikaslerik. Zatitze silabiko-alfabetikoaren faseri dagokionez, hurrengo da banaketa: Abusu Ikastolan %40a eta Arrigorriagako Herri Ikastetxean %33a. Autoreek proposatzen duten azken faseari dagokionean, zatitze alfabetikoaren fasea, Abusuko ikasleen %33a bertan kokatzen da eta Arrigorriagako ikasleen kopuru handi bat (%62a).



Grafiko 7. *Abusu Ikastola eta Arrigorriagako Herri Ikastetxeko zailtasunak*

Idazteko zailtasunei erreparatu (7 grafikoa), hurrengoak dira idazketa prozesuan bai Abusu Ikastolan bai Arrigorriagako Herri Ikastetxean errepikatu diren zailtasunak:

1. Haurren artean zailtasun nabarmenena, akats ortografikoak izan dira. Ohikoenak ts, tz eta tx-n ikusi izan dira eta s eta z-ren artean ere.

2. Haur batzuk, letrak beste norabiderantz idazten dituzte. Kasu gehienetan, “S” letra bestea noranzko batean idatzi dute eta “G” letraren kasuan ere gutxi batzuk identifikatu dira.
3. Ikasle gutxi batzuk hitzen eta letren arteko espazioak ez dituzte errespetatzen. Hau da, askotan bi hitz ezberdin elkarturik idatzi dira eta beste batzuetan aldiz, hitz bakarreko letren artean espazio larregi utzi da.
4. Haur ezkertiarren kasuan, hitzak kontrako norabidean idatzi dituzte. Hau da, ezkerretik eskumara idatzi beharrean, eskumatik ezkerrera sortu dituzte idatziak.
5. Hiru urteko haurren artean grafia irudikatzeko zailtasuna antzeman da. Gainera, zailtasun hau nabarmena izan da imitazio fasean aurkitzen diren ikasleen artean; hitz konbentzionalak oraindik ez dituzte idazten eta marrak eta zirkuluak erabiltzen dituzten haien idatzietan (Fons, 2001).

4. Emaitzen eztabaida

Ikerketa egin eta datuei erreparatuta, argi dago ez dagoela idazketa fase zehatzik adin bakoitzeko. Beraz, lanaren lehenengo hipotesia ez da guztiz bete. Egia da, adin bakoitzean nabarmentzen edo nagusitzen den fase bat edo bi aurkitzen direla. Kontuan hartu behar da, haur bakoitzak bere garapen prozesua duela eta idazketa faseak, garapenarekin batera aurreratzen edo gaintzen dira (Ferreiro, 1997; Fons, 2001; Ibarra, 2008; Maia eta Larrea, 2010). Beraz,

Agerian dago, hiru urteko haurren kasuan, imitazio fasea eta idazkera bereiziko fasea nabarmentzen direla. Adin honetako haurrak, alde batetik, idazteko marrak eta zirkuluak erabili dituzte, hau da, ikasleen %47ak forma ez-ikonikoz osaturiko idatziak sortu ditu (Fons, 2001). Beste alde batetik, haurren beste kopuru handi bat (%50a) idazkera bereizian aurkitzen da. Izan ere, haurrek idatzitako hitzetan letra konbentzionalak erabili dituzte (Fons, 2001). Horrez gain, badaude adin honetan idazkera eta doinuen arteko erlazioak egiten dituztenak. Izan ere, Maiak eta Larreak (2010) adierazten duten bezala, badaude silaba bakoitzeko letra bat idazten duten haurrak eta horiek fase silabikoan kokatzen direla gehitzen dute.

Abusu Ikastola eta Arrigorriagako Herri Ikastetxean aurkitzen diren lau urteko haurrak, Ferreirok (1997), Fonsek (2001), Ibarrek (2008) eta Maiak eta Larreak (2010)

proposatzen dituzten idazketa prozesuko bost faseetan kokatzen dira. Izan ere, badaude zirkuluak edo marrak eta letra konbentzionalak erabiltzen dituzten haur gutxi batzuk (Fons, 2001). Haurren kopuru handiena (%57a), Maiak eta Larreak (2010) azaltzen duten fase silabikoan kokatzen dira, hau da, silaba bakoitzeko letra bat idazten dute, idazketa eta doinuen arteko erlazioak egiten dituztelako. Zatitze silabiko-alfabetikoan aurkitzen diren haurren kasuan, silaba bakoitzean doinu bat baino gehiago dagoela konturatu dira eta horren ondorioz, silaba bakoitzeko letra bat baino gehiago idazten dute, hitz horrek dituen bokal eta kontsonante guztiak idatzi barik. Gainera, ikusi ahal izan dugunaren arabera eta Fonsek (2001) proposatzen duena kontuan hartuz, fase honetan aurkitzen diren hurrek elementu nabarmenenak idazten dituzte. Hau da, ikasleen idatzietan, bokal tonikoak eta lehenengo kontsonanteak ageri dira (Maia eta Larrea, 2010). Horrez gain, adin honetan ere, badago ahoskatzen den guztia idazten duen haur kopuru txiki bat (%1a); zatitze alfabetikoaren fasean aurkitzen da.

Bost urteko haurren kasuan, Ferreirok (1997), Fonsek (2001), Ibarrek (2008) eta Maiak eta Larreak (2010) proposatzen dituzten azkeneko bi faseak nabarmentzen dira; zatitze silabiko-alfabetikoaren eta zatitze alfabetikoaren faseak. Beraz, adin honetako haurren %46ak ahoskatzen den guztia idazten du. Ikasleen %37a berriz, silaba bakoitzeko letra bat baino gehiago idazten du (Maia eta Larrea, 2010). Egia da, badaudela oraindik silaba bakoitzeko letra bat idazten duten haurrak (Maia eta Larrea, 2010) eta letra konbentzionalen erabilpena egiten dutenak (Fons, 2001).

Emaitzetan ikusi den bezala, badaude adinarekin desagertzen edo gainditzen doazen faseak. Beraz, haurren garapena aurrera joan ahala, haurren idazketa prozesuak ere aurrera egiten du. Gainera, ikerketan jasotako datuei eta autore desberdinek esandakoari erreparatuz, esan daiteke hiru urteko haurrak idazketa prozesuaren hasieran kokatzen direla, hau da, idazketa munduan esploratzaile berriak dira. Lau eta bost urteko haurren faseak zeintzuk diren ikusita, agerian dago prozesuan murgildurik daudela; bost urteko haurrak lau urtekoak baino gehiago.

Ikertutako bi ikastetxeek metodologia ezberdinak erabiltzen dituzte. Abusu Ikastolan, idazketa lantzeko fitxen presentzia eskasa da eta idazketa lantzeko txoko espezifiko bat dago; kontuan hartu behar da txokoen erabilpena zentroan hautazkoa dela. Arrigorriagako Herri Ikastetxean berriz, batez ere lau eta bost urteko geletan, idazketa lantzeko fitxen presentzia nabarmena da. Bi ikastetxeko grafikoetan ikusten den bezala,

haurren faseei erreparatuz, ez da desberdintasun handirik ikusten Abusu Ikastola eta Arrigorriagako Herri Ikastetxearen arteko ikasleengan. Modu honetan, lanaren bigarren hipotesia egiaztatu egin da. Beraz, fitxen erabilpenak ez du idazketa bermatzen, hots, gero eta fitxa gehiago erabiltzeak ez du esanahi haurrek idazketa fasetan aurrera egingo dutenik.

Idazketa prozesuan ematen diren haurren zailtasunak antzekoak dira ikertutako bi zentroetan; Abusu Ikastolan eta Arrigorriagako Herri Ikastetxean. Izan ere, aztertutako bi zentroetako haurren idatzietan akats berdinak errepikatu dira lanaren hirugarren hipotesia egiaztatuz. Gainera, Ibarak (2008) eta Maiak eta Larreak (2010) proposatzen dituzten zenbait zailtasun eta arazo kognitibo ikusi da ikertutako haurren idatzietan. Garrantzitsua da, idazketa munduan murgilduta dauden haurren akatsak identifikatzea eta aldi berean, horiengan arreta ipintzea. Horretarako, idazketa prozesuan zailtasun horiek gainditzeko aukera ezberdinak eskaini behar zaie hurrei; idazketa prozesuan laguntzeko eta haien idazketa garapenean aurrera egin dezaten.

5. Ondorioak

Umeen faseak adin ezberdinetan identifikatzeko eta idazketa prozesuan haurrek izaten dituzten zailtasunak ikusteko egin den ikerketak hurrengo ondorioak ateratzeko aukera eman du.

Helburuei erreparatuta, umeen gehiengo handi bat bere adinari dagokion fasean kokatzen da. Aipatu bezala, adin bakoitzean nabarmentzen den fase bat edo bi daude gehienez, eta ikertutako haurrak gehiengo horretan kokatzen dira nahiz eta salbuespen gutxi batzuk egon.

Ikertutako metodologiaren artean ez da desberdintasun handirik ikusten haurren idazketa prozesuko faseetan. Hortaz, Molinaren (2001) gomendioei jarraituz, metodologia naturalaren erabilpena bultzatu behar da. Modu honetan, haurrek idazketa prozesuan murgiltzeko aukerak izango dituzte. Horrez gain, autore honek proposatzen duen metodologiaren erabilpenarekin batera, haur bakoitzaren garapen erritmoa errespetatzen dela ikusi da.

Topatu diren zailtasunak, oso arruntak dira idazketa prozesuaren hasierako urte hauetan, hots, Haur Hezkuntzako hiru, lau eta bost urteko haurrek horrelako zailtasun edo

akatsak izan ohi dituzte idatziak sortzerako momentuan. Beraz, ikertutako haurren idatzietan aurkitu diren zailtasunak, zalantzan gera daitezke oraindik. Izan ere, Haur Hezkuntzako etapan ez dira dislexia bezalako trastornoak detektatzen idazketa arloari dagokionean. Alvaradok et. al. (2007), dislexiaren detekzioa, Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan (sei eta bederatzi urte bitartean) edo Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan (bederatzi eta hamabi urte bitartean) detektatzen dela diote.

6. Ikerketaren mugak eta etorkizunerako aukerak

Adin ezberdinetako umeen faseak identifikatzeko eta aldi berean, horietan aurkitzen diren zailtasunak ikertzeko prozesuan zenbait mugekin topo egin dugu. Ikerketa egiteko, arestian aipatu bezala, Bilbo Handian kokatzen diren bi ikastetxe aukeratu ditugu horien errealitatea idazketa prozesuari dagokienean zein den aztertzeo aukerak izanez. Beraz, Haur Hezkuntzako hiru, lau eta bost urteko haurren faseak modu globalean zeintzuk diren zehazteko muga izan da bi zentroen aukeraketarekin. Izan ere, lagina txikia da ikerketan eman diren datuak modu global batean aurkezteko.

Gainera, ikerketa egiteko beharrezkoa izan den informazio modu ezberdinetan lortu izan da. Zentro batean, haurren idatzien diseinua zentro horretako irakasleek mugatu dute eta haiek markatu dituzte jarraitu beharreko pausuak. Modu honetan, aztertutako zentro batean behaketa parte-hartzailea egiteko aukerarik ez dugu izan.

Etorkizuneko ikerketei begira, faseak eta horietan aurkitzen diren zailtasunez gain, irakaslearen rola zein den behatzea edo ikertzea ere gustatuko litzaiguke. Zentro berdineko irakasleek metodologia edo teknika ezberdinak erabiltzen dituzte haurrak idazketa prozesuan murgiltzeko. Beraz, irakaslearen rola haurren garapen prozesu honetan garrantzia duela uste dugunez, hurrengo baterako hauen rola zer nolako eragin duen ikertuko genuke. Modu honetan, irakaslearen rola umeen idazketa prozesuko faseetan eraginik duen ala ez egiaztatzeo.

Horrez gain, ikertutako zentroetan metodologia ezberdinak erabiltzen dira baina badaude beste metodologia asko zentro ezberdinetan martxan. Horregatik, etorkizunari begira, ondo egongo litzateke beste metodologia batzuk erabiltzen dituzten zentroetan haurren idazketa faseak eta horietan sortu daitezkeen zailtasunak ikertzea.

Azkenik, epe luzerako ikerketa bat burutzea ondo egongo litzateke hurrek idazketa faseetan dituzten aurrerapenak zeintzuk diren aztertzeko. Hau da, ikasturte oso batean ikasle talde batek prozesu honetan izandako garapena zein den aztertzea. Horrez gain, ikasle talde zehatz baten ikerketa jarraitua egitea ondo legoke. Modu honetan, haurrak hiru, lau eta bost urteko geletan idazketa prozesuan izandako garapena ikertzeaz gain, urteekin gainditu dituzten zailtasunak zeintzuk diren identifikatu litezkeelako.

7. Erreferentzia Bibliografikoak

- 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, *Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa*. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 9, 2016ko urtarrilaren 15ekoa.
- Alonso, I., Bilbatua, M. eta Egizabal, B. (2012). *Hizkuntza idatziaren ikaskuntza Haur Hezkuntzan: Sekuentzia Didaktiko baten proposamena*. Mondragón: Mondragón Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.
- Alvarado, H., Damians, M.A., Gómez, E., Martorell, N., Salas, A. eta Sancho, S. (2007). Dislexia. Detección, diagnóstico e intervención interdisciplinar. *Enginy*, 16-17, 4-6.
- Bigas, M. (2001). El lenguaje escrito. La alfabetización. In Bigas, M. eta Correig, M. *Didáctica de la lengua en la educación infantil* (103-124 or.). Madril: Síntesis.
- Correig, M. (2001). ¿Qué es leer? ¿Qué es escribir? In Bigas, M. eta Correig, M. *Didáctica de la lengua en la educación infantil* (125-156 or.). Madril: Síntesis.
- Díez de Ulzurrun, A. (koor.) (1999). *El aprendizaje de la lectoescritura. El aprendizaje de la lectoescritura desde un punto de vista constructivista. Actividades para realizar en el aula: textos funcionales y cuentos*. Vol.1. Bartzelona: Graó.
- Fons, M. (2001). Enseñar a leer y a escribir. In Bigas, M. eta Correig, M. *Didáctica de la lengua en la educación infantil* (179-212or.). Madril: Síntesis Educación.
- Ferreiro, E. (1997). *Alfabetización teoría y práctica*. Mexiko: Siglo veintiuno.
- Haranburu, M., Alonso-Arbiol, I., Balluerka, N. eta Gorostiaga, A. (2008). *Idatziaren didaktika Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Ibarra, I. (2008). Idazketaren didaktika urtez urte. *Hik Hasi*, 24. monografikoa. Gipuzkoa: Xangorin.
- Juaristi, P (2002). *Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetzeko proposamen. Euskarazko irakurketa-idazketa prozesuaren zailtasunen trataera* (Ikerketa proiektua).

- Larrea, K. eta Maia, J. (2010). *Galdera erantzun batzuk hizkuntzaren didaktikaz*. Bilbo: Euskara eta eleaniztasuneko errektoreordetzaren sare-argitalapena.
- León, O.G. eta Montero, I. (2002). *Métodos de Investigación en Psicología y Educación*. Madrid: McGrawHill.
- Molina, S. (2001). Irakurtzen ikasteko zailtasunen prebentzioa Haur eskolan. Ikastolen elkarte. *VIII Jardunaldi pedagogikoak: Irakurketa eta idazketa*. Iruñea: Ikastolen elkarte.
- Rodríguez, M.G. (1985). Enseñanza de la lengua escrita. ¿A qué edad?. *Infancia y Aprendizaje*, 30, 39-50.